

Euskaratik mundura, leiho berri bat sarean

Kontsumo eredu aldatu egin da telebistan ere». Hausnarketak hori egin dute Jokin Etxeberriak eta haren lankideek Next Station plataforman. Enpresa pribatuek eta erakunde publikoek osatutako egitasmoa da, eta komunikaziorako ideien faktoria gisa jarduten diralanean. Hainbat egitasmo prestatu dituzte, eta, horien tartean, euskaraz eta 4K formatuan ekoiztutako lehenengo sail digitala osatuko dute: «Nahi dugu euskarak joko zelai berria edukitzea sarean barrena».

Euskal Herriko hiru ekoiztetxeek, EITBk eta Eiken Ikus Entzunezkoen Euskal Klusterrak hartu dute bere gain sei atalez osatutako web saioa abian jartzeko ardura. Next Station plataformaren bitartez kudeatuko dute egitasmoa, eta, gaur-gaurkoz, hautaketa prozesuan daude murgilduta: «Eskatu diogu jendeari egin dezala sare sozialetan minutu bateko bideoa, haien proposamena ahalik eta zehatzen azalduz», esplikatu du Etxeberriak.

«Ideia da garrantzitsuena», azpimarratu du Next Stationeko kideak. Hortaz, ikus-entzunezkoen munduan aritzen diren profesional eta zaleentzako proposamena da sail digitalarena. Ekoiz-

penaren kostuak, berriz, bere gain hartuko ditu plataformak: «Parte hartzaileek ez dute deus galtzeko. Eskatzen duguna da ideia ona izatea euskarazko telesail bat egiteko».

Proiektuaren harrera ona

Azaroan hasi ziren hautagaitzak biltzen, eta dagoeneko jaso dituzte dozenaka: «Apostua egin genuen, eta jendeak erantzun egin du». Etxeberriaren ustez, lehiaketako parte hartzeak erakusten du Euskal Herrian badaudela euskaraz ekoizti nahi duten sor-

Gazteak «eroso» sentitzen dira formatu berri horiekin, eta euskararentzat garrantzitsua da sarean presentzia edukitzea

tzaileak. Izena eman dutenak gazteak dira batik bat, eta lurralde guztietatik jaso dituzte iradokizunak: «Badugu muga bat Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren artean. Muga politikoa eta kulturala da, baina euskarak batzen gaitu», azpimarratu du Etxeberriak.

Ahalik eta hautagaitza gehien lortzeko, Telmo Trenor youtuberren laguntza izan dute, baina Next Stationeko kideek ere egin dute «hurbileko» lana. Euskal Herriko unibertsitateetara joan dira proiektua aurkeztera, eta

sortzaileak biltzen dituzten azoketara ere bai. «Sarean barrena mugitzen gara, baina garrantzitsua da aurrez aurreko harremana ere ez galtzea», ohartarazi du Etxeberriak.

Next Station plataformak egin izan ditu aurretik horrelako deialdiak, baina, orainoan, euskarari sostengua ematea izan da asmoa. Deialdia arrakastatsua izatea espero du ekoizleak, eta uste du 50 proposamenen langa gaindituko dutela.

Abenduaren bigarren hamabostaldian ekingo diote hautaketa prozesuari, eta plataformak hiru finalista hautatuko ditu. Bigarren fasean, beraz, hautatuek aukera izango dute egonaldi bat egiteko BBF

Bizkaiko Berrikuntza Faktorian. Hastapeneko ideiei forma eman ondoren, beste egonaldi bat egingo dute Donostiako Tabakalera, eta, horren ostean, irabazlearen izenaren berri emango dute. Hortaz, prozesua bera ikaspenerako aukera izango dela uste du Etxeberriak.

Epaimahai lanetan arituko dira EITBko, erakunde publikoetako eta ekoiztetxeetako arduradunak, eta, Next Stationeko kidearen ustez, positiboa da hori: «Euskaraz sail berriak ekoizteko zubiak eraikitzen ari gara, eta



Next Stationeko kideak, proiektua diseinatzen. JOKIN ETXEBERRIA

poztetkoea da hainbeste eragile elkartzea». Oroitarazi du belaunaldi berriek bestelako eredu batzuk dituztela telebista ikusterakoan, eta garrantzitsua dela kontsumo ereduaren aldaketaz ohartzea.

Haren ustez, gazteak «eroso» sentitzen dira formatu berri horiekin, eta euskararentzat ere garrantzitsua da sarean presentzia edukitzea: «Euskara XXI. mendeko hizkuntza dela erakutsi behar dugu. Euskarak balioa eduki

behar du sarean ere», ohartarazi du Etxeberriak. Horregatik, sail digitala EITBrekin egitearen garrantzia azpimarratu du: «Izan dira beste websail batzuk, baina gurea telebistan ere emango dugu; beraz, jende gehiagorengana iristea da gure helburua».

Datorren urtean hasiko dituzte grabaketak. Helburua, berriz, finkatua dute: «Euskarari sareko mundu zabalean hauspoa ematea».